



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko apirilaren 26a

57. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da modu ekitatibo eta garden batez bana ditzan publizitate instituzionaleko kontusaila edo kontusailak. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeak onetsia (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da jendaurrean gezurta ditzan tokiko zenbait hedabidek argitaratutako informazioak, zeinen arabera Nafarroako Gobernuak UGT erakunde sindikalari programa berriak esleitu baitizkio kontratazioaren babeserako eta laneko arriskuen prebentziorako arloetan. Eskubide Sozialetako Batzordeak bazter utzia (3. or.).

#### F S A I L A:

##### **Galderak:**

- Galdera, Hezkuntza Departamentuaren, Ultzamako Udalaren eta Larraintzarko Irurita Gotzaina ikastetxeko irakasle-taldearen artean ikastetxea handitze aldera lortutako akordioari buruzkoa. Cristina Altuna Ochotorena andreak egin du (4. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer jarrera duen, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak Hitzarmen Ekonomikoa gaurkotzeko negoziazioak telefono bidez egiteko asmoa duela-eta. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (5. or.).
- Galdera, gaixo/erabiltzaileendako osasun-laguntzaren kalitate-okertzea eta osasun-langileen gainkarga eta estresa arintze aldera Nafarroako Ospitaleguneko Larrialdi Zerbitzuan abian jarri beharreko hobekuntza planei buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (5. or.).
- Galdera, elektrizitate-hornidura hobetzeko lehenetsunean buruzkoa, industria eta Nafarroaren garapen ekonomiko eta soziala bultzatzeko. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, 2016-2017 ikasturtean Haur Hezkuntzako lehen zikloa emanen duten ikastetxeek bete beharreko baldintza fisikoei buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (7. or.).
- Galdera, 2012an kendutako aparteko ordainsaria ordaintzeari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (8. or.).

- Galdera, San Juan de Dios Ospitalearekiko hitzarmena berritzeari buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Tuterako Reina Sofia Ospitaleko larrialdi zerbitzuaren arazoak konpontze aldera Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak hartu beharreko neurriei buruzkoa. María Victoria Chivite Navascués andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei LOMCEk ezartzen duen ebaluazio-proba ez egiteko erabakiaren arrazoiei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean dauden enpresa publiko eta pribatuetan eta Administrazio Publikoan lan-arriskuen prebentzioaren kudeaketaren egoera kontrolatu eta hobetze aldera egungo Nafarroako Gobernuak abiatutako ekintzei buruzkoa. Carlos Couso Chamarro jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, 4.0 Industria izenekoaren etorrerarekin ustez gertatuko diren lanpostu-galerak ekidite aldera Nafarroako Gobernuak aurreikusten dituen neurriei buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, suhiltzaileei kasuko gaikuntzarik eduki ezean anbulantziak gidatzea exijitzerik ez dagoela dioen epaia dela-eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak hartuko dituen neurriei buruzkoa. Patxi Leuza García jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroan ETBren LTD bidezko emisioak berehala eten behar direla ezartzen duen Industriaren zehapen-espeditentari buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, funtzionarioei 2012an kendutako aparteko ordainsaririk falta dena itzultzeari buruzkoa. Laura Lucía Pérez Ruano andreak egin du (14. or.).
- Galdera, azken hiru urteotan lan-istripuen kopuruak izandako igoerari buruzkoa. José Miguel Nuin Moreno jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, maisu-maistren kidegoan sartzeko hautapen-prozesuari buruzkoa. Miren Aranoa Astigarraga andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Osasunbidearen eta Nafarroako Unibertsitatearen arteko hitzarmena ez berritzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (16. or.).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da modu ekitatibo eta garden batez bana ditzan publizitate instituzionaleko kontusaila edo kontusailak.**

*LEHENDAKARITZAKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, BARNEKO ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeak, 2016ko apirilaren 19an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da modu ekitatibo eta garden batez bana ditzan publizitate instituzionaleko kontusaila edo kontusailak.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du modu ekitatibo eta garden batez bana ditzan, parametro kuantifikagarri, neurgarri eta irekien arabera, ‘prentsa’ eta ‘internet’ euskarrietako publizitate instituzionalerako kontusaila edo kontusailak.

Gobernuak sei hilabete behin informazioa emanen dio Parlamentuari kontratatutako publizitate kantitateei buruz, publizitate hori sartu den hedabideei buruz eta horretarako erabili diren irizpide edo audientzia-neurketei buruz.”

Iruñean, 2016ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jendaurrean gezurta ditzan tokiko zenbait hedabidek argitaratutako informazioak, zeinen arabera Nafarroako Gobernuak UGT erakunde sindikalari programa berriak esleitu baitizkio kontratazioaren babeserako eta laneko arriskuen prebentziorako arloetan.**

*ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Carlos Couso Chamarro jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jendaurrean gezurta ditzan tokiko zenbait hedabidek argitaratutako informazioak, zeinen arabera Nafarroako Gobernuak UGT erakunde sindikalari programa berriak esleitu baitizkio kontratazioaren babeserako eta laneko arriskuen prebentziorako arloetan.”

Legebiltzarreko Eskubide Sozialetako Batzordeak, 2016ko apirilaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2016ko apirilaren 8ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Hezkuntza Departamentuaren, Ultzamako Udalaren eta Larraintzarko Irurita Gotzaina ikastetxeko irakasle-taldearen artean ikastetxea handitze aldera lortutako akordioari buruzkoa.***CRISTINA ALTUNA OCHOTORENA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Altuna Ochotorena andreak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuaren, Ultzamako Udalaren eta Larraintzarko Irurita Gotzaina ikastetxeko irakasle-taldearen artean ikastetxea handitze aldera lortutako akordioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko Cristina Altuna Ochotorena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du,

José Luis Mendoza Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Larraintzarko Irurita Gotzaina ikastetxeak bere 50. urteurrena ospatzen du aurten. Mende erdia betetzera iristen den honetan, ikastetxeak egitura-hutsune nabarmenak ditu, Parlamentuko Hezkuntza Batzordeko ordezkariok joan den abenduan egin genuen bisitan egiaztatu ahal izan genuen bezala.

2016ko martxoaren 27an Diario de Navarran argitaratutako berri baten arabera, "Hezkuntza Departamentutik baieztatu dute ikastetxea handitzeko akordioa lortu dela Ultzamako Udalarekin eta irakasle-taldearekin".

– Aipatu akordioari buruzko informazioa eskatzen dugu. Zertan da akordio hori?

– Nolako jarduketak egingen ditu Nafarroako Gobernuak 2016an? Aski al dira jarduketa horiek ikastetxearen beharrian eta eskaera guztiak asetzeko?

Iruñean, 2016ko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Cristina Altuna Ochotorena

**Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer jarrera duen, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak Hitzarmen Ekonomikoa gaurkotzeko negoziazioak telefono bidez egiteko asmoa duela-eta.**

*ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer jarrera duen, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak Hitzarmen Ekonomikoa gaurkotzeko negoziazioak telefono bidez egiteko asmoa duela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer jarrera duzu, Nafarroako Gobernuko lehendakari gisa, Mikel Aranburu Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak duen asmoa dela-eta, telefono bidez ekitekoa Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoa Estatuarekin gaurkotzeko negoziazioa bezain gai garrantzitsu eta sentibera bati?

Iruñean, 2016ko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

**Galdera, gaixo/erabiltzaileendako osasun-laguntzaren kalitate-okertzea eta osasun-langileen gaitzakeria eta estresa arintze aldera Nafarroako Ospitaleguneko Larrialdi Zerbitzuan abian jarri beharreko hobekuntza plani buruzkoa.**

*BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, gaixo/erabiltzaileendako osasun-laguntzaren kalitate-okertzea eta osasun-langileen gaitzakeria eta estresa arintze aldera Nafarroako Ospitaleguneko Larrialdi Zerbitzuan abian jarri beharreko hobekuntza plani buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko Begoña Ganuza Bernaola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Artatzea hobetzeko nolako planak abiatu gogo dira Nafarroako Ospitaleguneko Larrialdi Zerbitzuan, gaixo/erabiltzaileendako osasun-laguntzaren kalitate-okertzea eta osasun-langile ezberdinen gainkarga eta estresa arintze aldera?

– Zein epetan ekinen zaie?

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

---

**Galdera, elektrizitate-hornidura hobetzeko lehentasunei buruzkoa, industria eta Nafarroaren garapen ekonomiko eta soziala bultzatzeko.**

*GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, elektrizitate-hornidura hobetzeko lehentasunei buruzkoa, industria eta Nafarroaren garapen ekonomiko eta soziala bultzatzeko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Red Eléctrica Española (REE) enpresak berriki iragarri du 68 milioi euro inbertitu nahi dituela Nafarroan 2020. urtera arte. Horrekin batera enpresak iragarri zuenez, Nafarroako proiektuen etorkizunari begira, “harremanetan zegoen administrazioekin, Nafarroako Gobernuarekin koordinaturik, arreta berezia jarriz ingurumen- eta gizarte-arloetako aukera onenak bilatzeko.”

Zeintzuk dira Nafarroako Gobernuaren lehentasunak, elektrizitate-hornidura hobetzeko eta horrela industria eta Nafarroaren garapen ekonomiko eta soziala bultzatzeko?

Iruñean, 2016ko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderi atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak,

## **Galdera, 2016-2017 ikasturtean Haur Hezkuntzako lehen zikloa emanen duten ikastetxeek bete beharreko baldintza fisikoei buruzkoa.**

*CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, 2016-2017 ikasturtean Haur Hezkuntzako lehen zikloa emanen duten ikastetxeek bete beharreko baldintza fisikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Carlos Gimeno Gurpegui jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak zergatik ezarriko du 2016-2017 ikasturtean Haur Hezkuntzako lehen zikloa emanen duten ikastetxeek bete beharreko baldintza fisikoak izanen direla uztailaren 27ko 72/2012 Foru Dekretuaren lehen xedapen iragankorrean ezarritakoak –foru dekretu horren bidez martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretua aldatzen da, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautu eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak ezartzen dituen?–

Iruñean, 2016ko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## **Galdera, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluari buruzkoa.**

*AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua da Nafarroako Gobernuak eta Foru Komunitatean ordezkartasun handiena duten sindikatu eta enpresaburu-erakundeek elkarren arteko bilgune izateko duten organo instituzional iraunkorra, non elkarrizketa soziala gauzatu eta sustatuko baita, Nafarroaren kohesio sozialerako eta aurrerabide ekonomikorako faktorea den aldetik.

Zenbat alditan deitu du Nafarroako Gobernuak Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua legegintzaldi honetan?

Zein asmo dauka Gobernuak Kontseilu horri buruz?

Iruñean, 2016ko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

## **Galdera, 2012an kendutako aparteko ordainsaria ordaintzeari buruzkoa.**

*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 2012an kendutako aparteko ordainsaria ordaintzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilari Mikel Aramburu jaunak ahoz erantzun diezaion Osoko Bilkuran:

2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen 35. xedapen gehigarriak

honako hau ezartzen du: “[...] 2012an kendutako aparteko soldatetik ordaintzeko dagoen zatiaren itzulketak lehentasunezkoak izanen dira beren kopurua 2016ko ekitaldian zehar handitzeko orduan, diru-sarrerei buruzko aurreikuspenek horretarako bidea ematen badute”

Apirilaren 14ko Osoko Bilkuran Ogasuneko kontseilariak adierazi zuen diru-bilketa ondo zihotala.

Apirilaren 19an, asteartez, Espainiako Gobernuak iragarri zuen Estatuko Administrazioako langileek apirilari dagokion nominan berreskuratuko dutela kendutako aparteko ordainsaritik falta dena.

Gertaera horiek eta lau alderdiko gobernuaren taldeek bultzatuta Aurrekontuei buruzko Legean onetsi dena kontuan hartuta,

Asmorik al du Gobernuak 2012an kendutako aparteko ordainsaritik falta dena apiril honetako nominan ordaintzeko, Nafarroako enplegatu publikoak Estatukoak baino okerrago egon ez daitezzen?

Iruñean, 2016ko apirilaren 20an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin



## **Galdera, San Juan de Dios Ospitalearekiko hitzarmena berritzeari buruzkoa.**

### *BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, San Juan de Dios Ospitalearekiko hitzarmena berritzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko Begoña Ganuza Bernaola andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

San Juan de Dios Ospitalearen inaugurazio-ekitaldian, O-NOZeko kudeatzaileak egiaztatu zuen “berritu egingen dela zentro horrekiko hitzarmena”, eta “egungo lankidetzaz-ildoei eutsiko zaiela” “Nolanahi ere, jarduera berri batzuk gehituko dira eta beste batzuk, berriz, beharbada aldatu egingen dira.”

– Zein irizpide hartuko dira oinarritzat hitzarmena berritzeko?

– Zein jardueratarako?

Iruñean, 2016ko apirilaren 20an

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

## **Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko larrialdi zerbitzuaren arazoak konpontze aldera Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak hartu beharreko neurriei buruzkoa.**

### *MARÍA VICTORIA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Victoria Chivite Navascués andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko larrialdi zerbitzuaren arazoak konpontze aldera

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak hartu beharreko neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Apirilaren 20an, asteazkenez, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak neurri batzuk iragarri zituen Nafarroako Ospitaleguneko Larrialdi Zerbitzuan dauden arazoak konpontze aldera.

Tuterako Reina Sofía Ospitalean ere arretari eta itxaron-denborei lotutako arazoak daudela kontuan hartuta,

hona galdera:

Zein neurri gauzatuko ditu O-NOZek Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuan dauden arazoak konpontze aldera?

Iruñean, 2016ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

---

**Galdera, Hezkuntza Departamentuak Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei LOMCEk ezartzen duen ebaluazio-proba ez egiteko erabakiaren arrazoiei buruzkoa.**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuak Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei LOMCEk ezartzen duen ebaluazio-proba ez egiteko erabakiaren arrazoiei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein dira Hezkuntza Departamentuak dituen arrazoiak Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei LOMCEk 2015-2016 ikasturte honetarako ezartzen duen ebaluazio-proba ez egiteko?

Iruñean, 2016ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

**Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean dauden enpresa publiko eta pribatuetan eta Administrazio Publikoan lan-arriskuen prebentzioaren kudeaketaren egoera kontrolatu eta hobetze aldera egungo Nafarroako Gobernuak abiatutako ekintzei buruzkoa.**

*CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamarro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitatean dauden enpresa publiko eta pribatuetan eta Administrazio Publikoan lan-arriskuen prebentzioaren kudeaketaren egoera kontrolatu eta hobetze aldera egungo Nafarroako Gobernuak abiatutako ekintzei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamarro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Datorren osteguna, apirilak 28, Laneko Osasunaren Nazioarteko Eguna izanen da. Nafarroako

enpresetan lan-arriskuen prebentzioak duen egoerari buruzko datu negatiboek goranzko joera argia erakutsi dute, 2014tik erregistratu eta azaltzen denez arloan eskumena daukaten izaera publikoko erakunde teknikoek aldian-aldian prestatzen dituzten azterlan eta oroitidazkietako txostenetan (adibidez, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak edo Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Nafarroako Ikuskatzaileak eta haren Mediku-ikuskaritzak eginkoetan). Erakunde sindikalek aurkeztutako azterlanetan ere horren berri ematen da. Hori dela eta,

Zein ekintza garatu ditu Nafarroako Gobernuak, egungo legegintzaldiaren hasieratik gaur arte, hari babesa ematen dioten indar politikoei sinatutako programa-akordioan ezarritako konpromisoak kontuan hartuta, gure Foru Komunitatean dauden enpresa publiko eta pribatuetan eta Administrazio Publikoan lan-arriskuen prebentzioaren kudeaketaren egoera kontrolatu eta hobetze aldera?

Zer beste ekintza garatu nahi ditu hemendik aurrera?

Iruñean, 2016ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamarro

## **Galdera, 4.0 Industria izenekoaren etorrerarekin ustez gertatuko diren lanpostu-galerak ekidite aldera Nafarroako Gobernuak aurreikusten dituen neurriei buruzkoa.**

*GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, 4.0 Industria izenekoaren etorrerarekin ustez gertatuko diren lanpostu-galerak ekidite aldera Nafarroako Gobernuak aurreikusten dituen neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Orain dela gutxiko adierazpen batzuetan, Nafarroako Gobernuak Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manu Ayerdi ohartarazi zuen "Nafarroan lanpostu asko gal daitezkeela" 4.0 Industria izenekoaren etorrerarekin. Berak dioenez, horrek "profil berriak eskatuko ditu," eta aitortzen du aldea dagoela gaur egungo profiletako gaitasunen eta dagoeneko eskatzen hasi direnen artean.

Zer neurri aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak, lanpostu-galera iragarri hori ekidite aldera?

Iruñean, 2016ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

## **Galdera, suhiltzailei kasuko gaikuntzarik eduki ezean anbulantziak gidatzea exijitzerik ez dagoela dioen epaia dela-eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.**

*PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, suhiltzailei kasuko gaikuntzarik eduki ezean anbulantziak gidatzea exijitzerik ez dagoela dioen epaia dela-eta

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuako Lehendakartzako, Justiziako eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak epai bat eman berri du, suhiltzaileei kasuko gaikuntzarik eduki ezean anbulantziak gidatzea exijitzerik ez dagoela adierazi duena. Epai horren harira,

Zer neurri hartuko ditu zure departamentuak egoera hori konpontze aldera?

Iruñean, 2016ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

---

**Galdera, Nafarroan ETBren LTD bidezko emisioak berehala eten behar direla ezartzen duen Industriaren zehapen-espeditari buruzkoa.**

*KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan ETBren LTD bidezko emisioak berehala eten behar direla ezartzen duen Industriaren zehapen-espeditari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

jakinarazten zitzaion “ETBk TDT bidez Nafarroan daukan emisioa bertan behera utzi behar zuela berehala”. Hori ikusita, hurrengo asteazkenean, hau da, apirilaren 20an, Foru Gobernuak erabaki zuen neurri hori kentzeko eskatzea eta espeditatean agertzea.

Ondoren, Nafarroako Gobernuaren eledun Ana Ollok zehaztu zuen ezen espeditatea aurreko Nafarroako Gobernuak 2015eko martxoan aurkeztu zuen salaketa baten ondorioz hasi zela, eta beraiek ez zutela salaketa horren berri izan.

Gertatuaren larria dela-eta, eta azkenean informazio, prestakuntza eta aisia iturri hori eskuratzea eragozten bazaio Nafarroako gizarteari ekar diezaiokeen kaltea ikusita, parlamentu-talde honek galdera hau egiten du:

Ollo kontseilariak zer-nolako balorazioa egiten du informazio hori ezkutuan utzi izanari buruz?

Zein pauso emanen ditu Gobernuak, Nafarroako herritarrek ETBren TDT bidezko emisioa eskuratu ahal izan dezaten, Nafarroako Parlamentuak berak 2013ko abenduan onetsi zuen bezala?

Iruñean, 2016ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Apirilaren 18an, Nafarroako Gobernuak izan zuen Industria Ministerioak ETBri irekitako zehapen-espeditate baten berri; horren bidez, ETBri

## **Galdera, funtzionarioei 2012an kendutako aparteko ordainsaritik falta dena itzultzeari buruzkoa.**

*LAURA LUCÍA PÉREZ RUANO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Laura Lucía Pérez Ruano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, funtzionarioei 2012an kendutako aparteko ordainsaritik falta dena itzultzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Laura Pérez Ruano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarri-

takoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Lehendakariatzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak 2016ko apirilaren 28ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Diru-sarreren 2016ko martxoaren 31ko bete-tze-egoera argitaratu da, eta egiaztatu da aldi horretako diru-bilketa garbia % 21,4 (111,5 milioi) handitu dela 2015ekoaren aldean.

Hori kontuan hartuta, eta 2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 29ko 1/2016 Foru Legearen hogeita hamabosgarren xedapen gehigarriari jarraituz, handitzeko asmorik al duzu funtzionarioei 2012an kendutako aparteko ordainsaritik falta dena itzultzeari dagokion kontusailaren zenbatekoa, halatan aurten, 2016an, oso rik itzul dakien?

Iruñean, 2016ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Laura Pérez Ruano

## **Galdera, azken hiru urteotan lan-istripuen kopuruak izandako igoerari buruzkoa.**

*JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, azken hiru urteotan lan-istripuen kopuruak izandako igoerari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-teko José Miguel Nuin Moreno jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak apirilaren 28ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2014arekin alderatuta, lanaldian zehar gertatutako lan-istripuak % 5,91 ugartu ziren Nafarroan 2015ean, Enplegu Ministerioaren behin-behineko datuen arabera.

UGT sindikatuak egindako txosten batean jasotzen denez, Nafarroan 2013tik hasita hautsi zen 1.000 biztanle bakoitzeko istripu-kopurua

murritzeko joera. 2004tik 2012ra bitartean ratio hori 60,5ekoa izatetik 28,2koa izatera igaro bazen ere, 2013an 28,6ra igo zen; 2014an, 30,4ra; eta 2015ean, 31,5era.

Sindikatuaren arabera, horren arrazoiak dira, besteak beste, enpresek lan-prebentzioan egindako inbertsioa jaistea, 2012ko lan-erreformaren ondorioz negoziazio kolektiboa ahuldu izana eta lan prekarietatea areagotzea.

Horregatik guztiagatik, hauxe jakin nahi dugu:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du lan-istripuen kopuruak azken hiru urteotan izandako igoerari buruz? Zer ekintza jarriko ditu abian lan-istripuen kopurua murrizteko joera berreskuratzeko?

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

## **Galdera, maisu-maistren kidegoan sartzeko hautapen-prozesuari buruzkoa.**

*MIREN ARANOA ASTIGARRAGA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miren Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, maisu-maistren kidegoan sartzeko hautapen-prozesuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilari José Luis Mendoza Peña jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiak ezetsi egin du Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak maisu-maistren kidegoan sartzeko hautapen-prozesua onesteko emandako ebazpenaren aurka Afapna sindikatuak aurkeztutako errekurtsioa. Hori ikusirik, parlamentu-talde honek jaki nahi du ea departamentuak nola baloratzen duen erabaki judizial hori, eta ea zer urrats egiten diren hautapen-prozesu horretan merezimenduen, gaitasunaren eta berdintasunaren printzipioak bermatzeko.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

## **Galdera, Osasunbidearen eta Nafarroako Unibertsitatearen arteko hitzarmena ez berritzeari buruzkoa.**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Adieraztea jakinaren gainean dagoela Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Osasunbidearen eta Nafarroako Unibertsitatearen arteko hi-

tzarmena ez berritzeari buruzkoa zen, eta 2016ko urtarrilaren 14ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza